

PRENTSA OHARRA: 2026.08.07

Nazioarteko 22 ikasle euskara ikasten ari dira abuztuan Zornotzako Aurten Bai barnetegian

- Europa eta Amerikatik etorritako ikasleak bildu ditu abuztuaren 3tik 14ra bitarteko egonaldi honek

- Parte hartzaileek euskara eta euskal kultura ikasi dute ikasturtean zehar Etxepare Euskal Institutuaren nazioarteko unibertsitate sarean

Donostia, 2026ko abuztuaren 7a. – Etxepare Euskal Institutuaren nazioarteko unibertsitate sarean euskara eta euskal kultura ikasten duten 22 ikasle ikastaro trinkoa egiten ari dira egunotan Zornotzako Aurten Bai barnetegian. Egonaldia abuztuaren 3an hasi zen eta hilaren 14ra arte luzatuko da.

Taldea Poloniako bost ikaslek, Ameriketako Estatu Batuetako lauk, Alemaniako lauk eta Estatutik etorritako beste lauk —hiru Bartzelonatik eta bat Madrildik— osatzen dute. Horiez gain, Finlandia, Frantzia, Italia, Txile eta Uruguaitik ikasle bana etorri da.

Aurretik, uztailaren 13tik 24ra, beste 16 ikaslek hartu zuten parte programaren lehen txandan. Guztira, 38 ikaslek hartuko dute parte uda honetan Euskal Herriatik kanpoko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura ikasten duten ikasleei ikasturtean zehar eskuratutako ezagutzak sendotzeko eta sakontzeko aukera eskaintzen dieten egonaldi hauetan.

Euskara ikasteko bekak

Etxepare Euskal Institutuak 2012tik eskaintzen ditu euskara ikasteko egonaldiak egiteko bekak. Aurten Bai Fundazioarekin duen hitzarmenaren baitan, Institutuaren unibertsitate sareko ikasleek ikastaro trinkoak egiteko aukera dute Zornotzako Aurten Bai barnetegian.

Egonaldi hauek ikasleek euren jatorrizko unibertsitateetan ikasturtean zehar jasotzen duten prestakuntza osatzeaz gain, euskararen ezagutzan sakontzeko eta testuinguru euskaldun batean murgilduz euren hizkuntza gaitasunak garatzeko aukera ematen diete.

Etxepare Euskal Institutuak mundu osoko unibertsitateetan bultzatzen du euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza, atzerrian euskal ikasketak sustatu eta ikusgai egiteko helburuarekin. 2024-2025 ikasturtean, euskara eta euskal kulturako irakasgaiak 19 herrialdetako 35 unibertsitatetan eskaini ziren, eta 1.300 ikasle baino gehiago matrikulatu ziren.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus